



Usurbilgo Udala

2022KO URTARRILAREN 27AN EGINDAKO OHIKO UDALBATZAREN BILKURAKO AKTA

BERTARATUAK

Alkate-Lehendakaria

Agurtzane Solaberrieta Mesa

Zinegotziak

Beñat Larrañaga Urdanpilleta
Lur Etxeberria Gurrutxaga
Joxe Mari Iribar Zapirain
Ainhoa Arrozpide Landa
Luken Arkarazo Silva
Oskar Santamaria Pikabea
Itziar Basterrika Unanue
Josune Urkola Larrarte
Mirari Azurmendi Sorazu
Carlos Pérez Fraisoli
Andoni Atxega San Sebastian
Francisco José (Patxi) Suárez Pérez

Idazkaria: Garazi Etxeberria San Miguel

Arratsaldeko 18:00etan batzarrari hasiera eman zaio.

Usurbilen, 2022ko urtarrilaren 27an arratsaldeko 18:00etan, Udaletxeko Pleno Aretoan, Usurbilgo Udaleko ohiko Udalbatza Plenoa egiteko goian adierazten direnak lehen deialdian bildu dira.

Bertaratuak bezala goian agertzen diren zinegotziak batzarkide direlarik, Agurtzane Solaberrieta Mesa izan da Batzarburua.

1.- ALKATETZAKO DEKRETU HAUEN BERRI EMATEA: 2021EKO ABENDUAREN 20TIK 2022KO URTARRILAREN 21ERA (2021/1059-2022/0051).

Alkatetzak 2021eko abenduaren 20tik 2022ko urtarrilaren 21era bitartean (2021/1059-2022/0051) egindako dekretuen berri eman zaie bertaratutakoei.

Zinegotziak jakinaren gainean geratu dira.



Usurbilgo Udala

2.- 2022/30 DEKRETUA BERRESTEA (TXIRIKORDA).

Lur Etxeberriak dekretuari buruzko azalpenak eman ditu.

Hasteko aipatu du Construcciones Murias S.A. enpresari esleitu zitzaiola Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bateginako EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratua.

Hemen kontua dela dio Ugartondoko eremuan hainbat eragile daudela, Jaureguizar bere etxebizitzak egiten, bestetik Sukia bere blokeak egiten, Campezo urbanizatzen eta orain Udala sartu dela Muriasen bitartez Txirikorda egikaritzera. Hori horrela, koordinazio lan haundia egin behar dela dio bakoitzaren partzela oso mugatua dagoelako eta bakoitzak bere epekin aurrera jarraitzen duelako.

Txirikordako obrarekin iritsi zirenean ikusi zutela dio obrarekin hasi aurretik ja bazegoela arazo bat. Lur-ek argazki bat erakutsi du hobeto azaltzeko eta hau erakutsiz esan du mugamugan daudela eta lurra oso-oso txarra delako pilotajeak aurreikusten direla. Eskabazioekin hasten ziren momentuan eta hau jada urbanizatua dagoen eremua izanik, sare guztiak erortzeko arriskua zegoela, ondorioz, eskabazioekin hasi aurretik inguruko lurak egonkortu egin behar zirela ikusi zen.

Aukera ezberdinak aztertu zirela aipatu du eta azkenean ikusi zela dio merkeena eta funtzionatzen bazuen hoberena "*hinca de carriles*" egitea zela. Froga bezala 6 "*hinca de carril*" egin direla esan du eta baliozkoa izan dela ikusi dutela aipatu du.

Idazkariak aipatu du kasu honetan kontratazio organoa plenoa dela baina legeak aurreikusten duela dio presazko kasuetan alkateak dekretuz erabaki dezakeela eta ondoren plenoak erabaki hori berretsi egin behar duela.

Kasu zehatz honetan horrela egitea planteatu zela dio ze bestela obra geratu egin beharko baitzen plenoa egin arte.

Batzarkideek 2022/30 dekretua aho batez berretsi dute.

Honela dio dekretuak:

"2022/30 dekretua
2022/01/14

AGURTZANE SOLABERRIETA MESA Usurbilgo Udaleko alkateak, azaroaren 8ko 9/2017 Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 2. Xedapen Gehigarriaren 1. puntuak xedatutakoaren arabera, honako hau

IKUSIRIK



Usurbilgo Udala

2021eko apirilaren 29ko Udalbatza plenoak prozedura ireki eta ohikoaren bitartez Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratatzeke espedienteari onespena eman zion, udal Kontratatzaile Plataforman argitaratuz.

2021eko irailaren 30eko Udalbatza plenoaren erabakiz esleipena CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresaren alde egin zen eta kontratua 2021eko urriaren 5ean sinatu, 1.953.312,02 eurotan (BEZa salbuetsita). Zuinketa akta 2021eko abenduaren 16koa da.

Txirikorda A-59 Ugartondo eremuan kokatzen da, egun garapenean dagoen eremuan. Eraikinaren zimenduak egikaritzeko, proiektuko aurrekontuan aurreikusita zegoena aire zabaleko indusketa zen. Aldiz, inguruko urbanizazio lanen garapen maila zela eta 2021eko abenduaren 27ko Alkatezako Dekretuz honako erabaki hau hartu zen: “(...) **BIGARRENA:** *CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari esleituriko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra burutzeko kontratuaren baitan 6 “hinca de carriles” egikaritzea froga moduan. Kontratu honen hasierako prezioa 1.953.312,02 euro (BEZa salbuetsita) izan ziren eta egingo den hasierako froga honen balorapena 3.800,96 eurotako (BEZ salbuetsita) da.*”

Aipatutako 6 hinken froga 2021eko abenduan egikaritu zen, emaitza ontzat emanaz Udalaren, kontratistaren eta Obra Zuzendaritza/proiektugileen aldetik. Hori horrela, “hinca de carriles” guztiak egikaritzea kontratuari gehitu beharreko lanak dira eta kontratu aldaketa dakar. Aldaketa horren kopurua 49.162,90 eurokoa da, hasieran eginiko 3.800,96 eurotako frogaren kopurua barne.

Udal Arkitektoak, Idazkaritzak eta Kontuhartzaitzak txostena osatu dute.

Espedientean dagoen proposamena ikusita eta guzti hori kontutan hartuta, honako hau

ERABAKI DUT

LEHENA: CONSTRUCCIONES MURIAS S.A. enpresari esleituriko Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako A-59 (Ugartondo) eremuko Barne-Erreformatarako Plan Bereziaren Testu bategineko EQ.1 partzelan zuzkidura-alojamenduak egiteko exekuzio obra kontratua aldatzea obra gehigarriak txertatzeko. Kontratu honen hasierako prezioa 1.953.312,02 euro (BEZa salbuetsita) zen eta aldaketaren kopurua 49.162,90 eurokoa da, hau da, esleipen prezioarekiko aldaketa %2,52koa da.

BIGARRENA: 49.162,90 euroko gastua onartzea (BEZ-a salbuetsita), 2021eko aurrekontuko 1-6000-622-152-01-01 kontu-sailaren kontura (AD 2556-2021).

HIRUGARRENA: Kontratuaren exekuzio epea 30 lanegunetan luzatzea, guztirako exekuzio epea 13 hilabete eta erditan zehaztuz.



Usurbilgo Udala

LAUGARRENA: Esleipendunak kontratuaren bermea 2.458,14 eurotan handitu behar duela zehaztea, eta horretarako erabaki honen jakinarazpena jaso eta hurrengo egunetik kontatzen hasita 15 egun balioduneko epea ematea.

BOSGARRENA: Dekretu hau hurrengo ospatuko den Udalbatzari aurkeztea, erabakia berretsi dezan.

SEIGARRENA: Aldaketaren erabakia formalizatu eta Kontratatzailearen Profileen argitaratzea eta erabaki honen berri Hirigintza eta Kontu-hartzailletza sailei ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapiain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, dekretua aho batez berretsi da.

3.- GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA ETA USURBILGO UDALAREN ARTEKO HITZARMENA, ETXEKO LAGUNTZA ZERBITZUA FINANTZATZEKO.

Itziar Basterrikak azalpenak eman ditu, irizpeneko aurrekarietan jasotzen direnak. Beraz, aurreko hitzarmenaren indarraldia 2021eko irailaren 30ean amaitu zenez, orain hitzarmen berria sinatu behar dela esan du 2021-2023 aldirako etxeko laguntza zerbitzua finantzatzeko.

Batzarkideek Osasun eta Gizarte Zerbitzuen batzorde informatzailearen irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu dute aho batez:

“Esp. Zkia.: GZ.44/2021-0462

1.- AURREKARIAK

I.- Eusko Legebiltzarraren abenduaren 5eko 12/2008 Legeak, gizarte zerbitzuenak, erakunde publikoen ardurapeko zerbitzu sozialak sistema integratu batean antolatzen eta egituratzen ditu, Euskal Autonomia Erkidegoko esparruan zerbitzu horiek hartzeko eskubidea herritar guztiei bermatzeko.

II.- Aipatutako legearen 22.1 artikuluan Etxeko Laguntza Zerbitzua (ELD) jasotzen da lehen mailako arretako gizarte zerbitzuen barruan, eta udalen eskumenekoa da zerbitzu horiek eskaintzea, 42.4 artikulua ezarritakoaren arabera.



Usurbilgo Udala

III.- Legearen eskumen-banaketaren arabera, zerbitzu hori udalaren eskumen-eremuan ematen bada ere, aipatutako legearen hirugarren xedapen iragankorrean aurreikusitako euskal administrazio publikoen arteko finantza-berregokitzea gauzatzen ez den bitartean, udalak ezin du bere gain hartu etxez etxeko zerbitzuaren finantzaketa bakarrik. Ez, behintzat, horrek intentsitate- eta estaldura-mailak murriztea ekarri gabe, aipatutako xedapen iragankorrak berariaz debekatzen duen bezala.

IV.- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak, kudeaketa publikoaren eraginkortasuna eta etxeko laguntza-zerbitzuaren erabiltzaileei ematen zaien arreta hobetzeko asmoz, 2018an lankidetzaz-hitzarmen bat formalizatu zuten. 2021eko irailaren 30ean amaitu zen haren indarraldia, eta, bertan, zerbitzua finantzatzeko sistema arautzen zen.

V.- Bi administrazioen helburua da eskumenak berrantolatzen jarraitzea. Hori dela eta, Gizarte Zerbitzuen Erakunde arteko Mahaiaren barruan, erabaki dute 2021-2023 aldian zehar ELZren baterako finantzaketari eustea. Horretarako, lankidetzaz-hitzarmen berri bat formalizatu behar da.

Hori horrela, Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2022ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Itziar Basterrika, Beñat Larrañaga eta Francisco Jose (Patxi) Suarez-en aldeko bozkekin, aho batez egindako irizpena kontutuan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

Lehenengoa: Etxeko Laguntza Zerbitzua finantzatzeko Usurbilgo Udala eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko hitzarmena onartzea.

Bigarrena: Alkatea ahalmentzea Gipuzkoako Foru Aldundia eta Usurbilgo Udalaren arteko lankidetzaz hitzarmen hau sinatzeko.

Hirugarrena: Gipuzkoako Foru Aldundiari erabaki hauen berri ematea.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.



Usurbilgo Udala

4.- ADINEKO PERTSONENTZAKO USURBILGO “PUNTAPAX” EGUNEKO ZENTROAREN ERABILERA ETA KUDEAKETA ZERBITZUA EMATEKO KONTRATUA LUZATZEA.

Itziar Basterrikak azalpenak eman ditu, irizpeneko aurrekarietan jasotzen direnak. Esan bezala, momentuz urtebete luzatuko dela dio eta ondoren ikusiko dutela dio nola egin, zaintza ekosistema berria kontutan izanda.

Batzarkideek Osasun eta Gizarte Zerbitzuen batzorde informatzailearen irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu dute aho batez:

“Esp. Zkia.: ID.05/2017-0375

1.- AURREKARIAK

2018ko urtarrilaren 30ean egindako ohiko bilkuran erabaki zen Gestion de Servicios Residenciales, S.Coop-i (aurrerantzean, “GSR”) adineko pertsonentzako Usurbileko Puntapax eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emateko kontratua esleitzea. 2018ko otsailaren 14an aipatutako esleipenaren kontratua sinatu zen.

Plegu administratiboetan eta kontratuan aurreikusten den bezala, prestazioa burutzeko epea hiru urtekoa zen eta kontratua beste bi urtez luzatu ahal izango zen, urtez urte, hortaz, gehienez ere bost urteko iraupena izango zuen. 2021ean lehen luzapena egin zen 2022ko otsailaren 13a arte. Orain bigarren luzapena gauzatzeko aukera dago izan ere, plegu administratiboetako 4. klausulak zera dio:

“Prestazioa emateko epea guztira izango da HIRU URTEKOA, kontratua sinatu eta hurrengo egunetik hasita, eta berariaz eta elkarren artean adostuta luzatu ahal izango da urte bateko beste bi epez, baina iraupena guztira ez da izango BOST URTE baino luzeagoa.

Luzapenak kontratazio organuak burutuko ditu gizarte langilearen, kontuhartzailearen eta idazkari edo kontratazio teknikariaren aldeko txostenaren baitan.

Kontratua sinatzen duten bi aldeetako batek ez badu kontratua luzatu nahi, besteari horrela jakinarazi beharko dio, hasierako epea edo luzapenaren epea amaitu baino hiru hilabete lehenago gutxienez.”

Aipaturiko epean GSR-ek ez du kontratua ez luzatzeko eskaerarik aurkeztu.

Prezioari dagokionean, plegu administratiboetako 8. klausularen arabera kontratu honi ez dagokio prezio berrazterketarik eta ondorioz kontratuaren prezioa otsailaren 2an sinatutako kontratuan ezarritakoa izango da, hots:

- Lanegunak: 47,12€ (4% BEZ, 1,88 €, guztira 49,00 €)



Usurbilgo Udala

- Jaiegunak eta asteburuak: 51,77€ (%4 BEZ, 2,07 €, guztira 53,84 €)

Gizarte Zerbitzuen saileko arduradunak eta kontuhartzaileak kontratua luzatzearen aldeko txostena osatu dute.

Luzapenaren eskumena kontratazio organoari dagokio, kasu honetan Udalbatza plenoa.

2.- APLIKAGARRIA DEN LEGEDIA

- 3/2011 Legegintzako Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen testu bategina onartzen duena
- Maiatzaren 8ko 817/2009 Errege Dekretua, Sektore Publikoko Kontratuen 30/2007 legea partzialki garatzen duena.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretua, Administrazio Publikoetako Kontratuen Legearen Erregelamendu Orokorra onartzen duena.

Hori dela eta, azaroaren 28ko 2568/1986 Dekretuak onartzen duen Toki Erakundeetako antolaketa, funtzionamendu eta araubide juridikoaren Erregelamenduan (ROF delakoa), 175. artikuluan ezarritakoa eta Osasun eta Gizarte Zerbitzuen Batzordeak 2022ko urtarrilaren 20an egindako bilkuran, Itziar Basterrika, Beñat Larrañaga eta Francisco Jose (Patxi) Suarez-en aldeko bozkekin, aho batez egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: G.S.R., Gestion de Servicios Residenciales, S. Coop-ri “*Adineko pertsonentzako Usurbileko Puntapax eguneko zentroaren erabilera eta kudeaketa zerbitzua emateko kontratua*”ren bigarren luzapena egitea urte baterako, 2022ko otsailaren 14tik 2023ko otsailaren 13ra.

BIGARRENA: Plegu administratiboetako 8. klausularen arabera kontratu honi ez dagokio prezio berrazterketarik eta ondorioz kontratuaren prezioa honakoa dela zehaztea:

- Lanegunetan: 47,12€ (4% BEZ, 1,88 €, guztira 49,00 €)

- Jaiegun eta asteburuetan: 51,77€ (%4 BEZ, 2,07 €, guztira 53,84 €)

HIRUGARRENA: 2022. urteko aurrekontuko 8000.227.231.01.04 kontusailaren kargura 294.000,00 euroko gastua onartzea.

LAUGARRENA: Erabakia GSR, Gestion de Servicios Residenciales, S. Coop-ri, Gizarte zerbitzuetako sailari eta Kontu-hartzailetzari jakinaraztea.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

5.- DIRULAGUNTZEN PLAN ESTRATEGIKOA (2019-2022): 2022KO ERANSKINAK ONARTZEA.

Alkateak azalpenak eman ditu, irizpenean jasotzen den moduan.

Dirulaguntza lerro guztiak plenoak onartu behar dituela esan du, zehazki eranskin honetan jasotzen direnak, gero 2022ko dirulaguntza oinarriak onartu eta deialdiak egin ahal izateko.

Jarraian, 2022rako berrikuntza moduan bi lerro aipatu ditu. Batetik, kultur arloan herriko kultur sormena bultzatzeko eta sustatzeko herriko sortzaileei bideratutako dirulaguntza lerroa eta, bestetik, gizarte zerbitzuen alorrean gizarte bazterkeria premia larrian dauden herritarrak laguntzeko dirulaguntza lerroa.

Gizarte Larrialdietako Laguntzak Udalak aspalditik dituela esan du eta behin eta berriz esan izan dutela dio Jaurlaritzak %100ean finantzatu beharreko lerro bat dela. Datorren urtean zertxobait gutxitu egiten dela dio Jaurlaritzatik Udalarari egiten zaion ekarpena, oker ez badago 60.000 eurotik 50.000 eurora jeisten da, Udalak lerro horretarako 90.000 euro aurreikusten dituenean. Beraz, Udalak beste 40.000 euro jarri beharko dituela azpimarratu du.

Baina ikusten zutela dio aipatutako dirulaguntza horretatik kanpora gizarte segmentu bat geratzen zela, zorionez ez oso handia, eta horiei ere gutxieneko estaldura sozial bat bermatu beharra ziotela. Hau da, dirulaguntza lerro honen bitartez indarrean dauden Gizarte Larrialdietako Laguntzetatik kanpo geratzen diren herritarrak lagundu nahi direla esan du. Argitze aldera alkateak gaineratu du Gizarte Larrialdietarako Laguntza jaso dezaketela herrian gutxienez 6 hilabetez errolatuta daudenek, baina baldintza hori betetzen ez duten herritarrak badaudela dio eta Gizarte Larrialdietarako Laguntza jasotzeko aukerarik gabe geratzen direla.

Udalak martxan jartzen duen dirulaguntza honen bidez, momentu puntaletarako eta oinarritzko beharrei aurre egin ahal izateko pertsona horiek laguntza hau jasotzeko aukera izan dezaketela azpimarratu du.

Lerro honetarako momentuz 10.000 euro jaso dituztela esan du, baina eskaeren ondorioz behar gehiago balego, dudarik gabe partida handitu egingo luketela adierazi du.



Usurbilgo Udala

Alkateak jarraitu du esanez behin plan estrategikoaren 2022ko eranskina onartuta, asmoa dela otsaila erdi aldera Tokiko Gobernu Batzarrak dirulaguntzen oinarriak onartu eta deialdiak argitaratzea.

Batzarkideek Antolakuntza batzorde informatzailearen irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu dute aho batez:

“Esp.zk.: ID.02/2022-0004

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2019ko azaroaren 28an egin zuen bilkuran, Usurbilgo Udaleko 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoari hasierako onespina eman zion. Jendaurrean egon zen bitartean ez zenez erreklamaziorik aurkeztu, hartutako akordioa behin betikoa bihurtu zen eta testu osoa argitaratu zen 2020ko urtarrilaren 30eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

Gerora, Udalbatza Plenoak, 2021eko otsailaren 25eko bilkuran, 2021eko eranskina onartu zuen eta erabakia eranskinarekin batera Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu ziren 2021eko martxoaren 23an.

Orain, Plan Estrategikoaren eranskinak 2022ko datuekin eguneratu dira arloz-arlo:

- Euskara
- Garapen ekonomikoa eta enplegua
- Gazteria
- Gizarte Zerbitzuak
- Hezkuntza
- Hirigintza
- Idazkaritza
- Ingurumena
- Kirola
- Kultura
- Nekazaritza eta abeltzaintza

Antolakuntza Batzordeak, 2022ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, gehiengoz, Agurtzane Solaberrieta eta Lur Etxeberriaren aldeko botoarekin eta Josune Urkola eta Patxi Suárezen abstentzioarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENENGOA: 2020-2022 Dirulaguntzen Plan Estrategikoaren 2022ko eranskinak onartzea.

BIGARRENA: Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean erabaki honen berri ematea.”



Usurbilgo Udala

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

6.- BAKE EPAILEA ETA HONEN ORDEZKOAREN HAUTAKETA.

Alkateak irizpenean jasotzen diren aurrekariak aipatu ditu eta jakinarazi du bi hautagai daudela. Udal gobernutik egiten duten proposamena da orain arte bake epailea izan den Agustin Esnaola bake epaile titularra izendatzea. Alkateak gaineratu du aurretik Agustin Esnaolarekin hitz egin zuela eta honek bake epailea izaten jarraitzeko nahia agertu ziola.

Era berean, proposatzen dutena da bigarren hautagaia bake epaile ordezkoa izendatzea.

Batzarkideek Antolakuntza batzorde informatzailearen irizpena kontutan hartuta, honako erabakia hartu dute aho batez:

“Esp.zk.: ID.02/2021-0133

Usurbilgo Udalbatza Plenoak, 2021eko urriaren 28an egindako bilkuran, erabaki hauek hartu zituen:

“**LEHENA:** Hilabete bateko epea finkatzea iragarkia Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratzen den biharamunetik kontatzen hasita, Usurbilgo Bake Epaile titularra eta honen ordezkoa izateko interesa dutenek eskaerak aurkez ditzaten. Eskaerak udaletxe honetako erregistroan edota Administrazioako Jardunbidea arautzen duen Legediak xedaturiko eran aurkeztu beharko dira.

BIGARRENA: Espedientea erakusketa publikoan jartzea aipaturiko epean, interesatuek azter dezaten.

HIRUGARRENA: Erabaki hauek iragartzea Udaleko iragarki taulan, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Usurbilgo Bake Epaitegian eta Lehen Auzialdiko eta Argibideko Donostiako Epaitegi Dekanoan.”

Aipaturiko erabakiak honako iragarpen hauek izan ditu:

- Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (2021/11/17, 220 zk.)
- Udaletxeko Iragarki Taulan.



Usurbilgo Udala

- Udalaren web orrian.
- Donostiako Lehen Auzialdiko Epaitegian.
- Usurbilgo Bake Epaitegian.

Erakusketa publikoko epean, bi eskaera aurkeztu dira:

Eskatzailea	Bizilekua	Curriculum-a	Euskara
Agustin Esnaola Etxabe	Usurbil	-Ikasketak: *Batxilergoa. *Lanbide Hezkuntza II. -Lan esperientzia: *Unibertsitate mailako institutu bateko idazkari nagusia. *Azken hamasei urtetan Usurbilgo bake epailea.	Ama hizkuntza
Joana Murray Barandika	Durango	-Ikasketak: *Enpresen Administrazio eta Zuzendaritza eta Zuzenbidea Gradu Bikoitza. *Abokatutzan sartzeko masterra (burutzen). -Lan esperientzia: *Praktikak (hainbat).	C1

Bi eskaerak aztertu ondoren, Antolakuntza Batzordeak, 2022ko urtarrilaren 18an egindako bilkuran, gehiengoz, Agurtzane Solaberrieta, Lur Etxeberria eta Patxi Suárezen aldeko botoarekin eta Josune Urkolaren abstentzioarekin, egindako irizpena kontutan hartuta, Udalbatzarrak honako erabakia hartu du aho batez:

ERABAKIA

LEHENA: Agustin Esnaola Etxabe hautatzea Usurbilgo Bake Epaitegiko Epaille Titularra izan dadin.

BIGARRENA: Joana Murray Barandika hautatzea Usurbilgo Bake Epaitegiko Ordezko Epaillea izan dadin.

HIRUGARRENA: Erabaki hauek Euskal Herriko Justiziako Epaimahai Gorenari jakinaraztea, dagokion izendapena egin dezan.”

Honela izan da bozketa:

Aldeko botoak: Agurtzane Solaberrieta Mesa, Beñat Larrañaga Urdanpilleta, Lur Etxeberria Gurrutxaga, Joxe Mari Iribar Zapirain, Ainhoa Arrozpide Landa, Luken Arkarazo Silva, Oskar Santamaria Pikabea, Itziar Basterrika Unanue, Josune Urkola Larrarte, Mirari Azurmendi Sorazu, Carlos Pérez Fraisoli, Andoni Atxega San Sebastian eta Francisco José (Patxi) Suárez Pérez.



Usurbilgo Udala

Beraz, erabakia aho batez hartu da.

7.- GALDERA ETA ESKAERAK.

Ez dago.

Alkateak batzaraldia bukatutzat eman du arratsaldeko 18:20etan eta bilera agiri hau jaso da, alkateak izenpetuz eta nik, idazkariak, ziurtatuz.